

ZTF-FCTren ordutegiak diseinatu eta aldatzeko arautegia

(2014ko martxoaren 26ko fakultate batzarrak onetsia)

ZIOEN AZALPENA

Arautegi honen beharra sortu da fakultatean ikasturtero graduetakako irakaskuntzarako ordutegiak egin eta doitzeko prozesua hobetzeko premiarengatik.

Graduak ezarri zirenetik zenbait ikasturte iragan delarik, bizitako esperientzia analizatu ondoren, ikastegiko zuzendaritza taldeak beharrezko iritzia dio zenbait arau argi xedatzeari prozesu hau errazte aldera eta, bidenabar, ikasgelak eta ordutegien gestioan zeregin duten guztien lana (ikastegiko koordinatzaileak) erraztu eta hobetzarren. Hobetze honek onura ekarri behar du nolahi ere guztiontzat, hau da, ikasle, PII eta AZPkoentzat.

Arautegi hau hiru helburutara bideraturik egituratu da:

- Ordutegi sustengagarriak osatzeko arauak ezartzea. Hau da, arauak definitu nahi dira sailekin adostutako ordutegiek zenbait ikasturtetarako balio dezaten, ikasturtetik ikasturterako egutegi zehatza zein den alde batera utzirik. Batzuetan nahitaz bete beharreko arauak zehaztu beharko dira eta, beste batzuetan, gomendio gisakoak izango dira.
- Behin ordutegiak ezarrita, ezinbestean egin beharko liratekeen aldaketak arautzeko gidalerroak definitzea.
- Ordutegiak aldatzeko eskaria egiteko prozedura ezartzea.

ORDUTEGIAK EGITEKO IRIZPIDEAK

1. artikulua. Ordutegiak egingo dira egutegia zein den kontuan hartu gabe. Hau da testuan zehar ordutegi klonagarri edo sustengagarriak egiteaz esan gura dena.

Ikasgelako irakaskuntza modalitateetarako ordutegiak (ordu beteko T, S, GA, eta GO modalitateak) lau akademi ikasturtetarako balioa izango dute (bi ikasturte gehi beste bi luzatzeko aukeraz, aldaketak egiteko arrazoi garrantzitsuak egon ezean).

2. artikulua. Ikasgelaz besteko irakaskuntza modalitateetarako ordutegiak (ordubetetik gorako GL, GCA eta GO modalitateak) akademi ikasturtetik ikasturtera osatuko dira, nahiz ahaleginak egingo diren ikasturte batetik bestera ahal denik eta aldaketa txikienak egiten.

Ordubeteko ordenagailu taldeko (GO) modalitateko saioak, ikasgelako irakaskuntza modalitateen saioen artean badaude, hauen gisakotzat hartuko dira ordutegiari dagokionez (1. art.). Gainontzekoak (ordubetetik gorako saioetan multzokatutakoak) GL eta GCA gisa tratatuko dira.

3. artikulua. Ordutegietan, osatu bitartean nola gerora, sor litezkeen auzien aurrean, honako lehenespen hau ezartzen da:

- Lehenengo eta bigarren ikastarokoek gainerakoekiko, ordena honi loturik.
- Nahitazko irakasgaietakoak hautazkoetako ordutegiarekiko.

Ondorioz, ordutegiak lehenespenon ordenari jarraiki osatu beharko dira.

4. artikulua. Ordutegiak nahitaez aldatzea lekarkeen egoerarik gertatuz gero (alde baterako ezintasun, baimen, erretiroak...), ikastegiak aztertu eta, hala erabakiko balu, aldatuko du.

ORDUTEGIAK OSATZEKO GOMENDIOAK

5. artikulua. Ordutegiak osatzerakoan, gomendagarria da ondoko jarraibideekin bat etorrira jokatzea, sor daitezkeen problema asko bideratu eta konpontzeko:

- Ahal den guztietan, ez da programatuko talde beraren eta irakasgai bereko saio bat baino gehiago asteko egun berean.
- Irakaskuntza modalitateen talde ezberdinen saioak (GA1 eta GA2, edo S1, S2 eta S3, ...) asteko egun berean jartzea, ikasle zein irakasleentzako ordu kopuru gehiegizkoa ekidinez.
- Jai egun errepikatuen ondorioz¹, GA/S/GO irakaskuntza modalitateen talde ezberdinak desorekatzen direnean (egun berean irakatsiko ez balira), ukitutako saioaren ordutegia berresleituko ahal da, baina hori besterik ez. Aldaketa hauek ez dute eraginik izango gainontzeko talde edo irakasgaien ordutegietan.
- Ekidin behar dira, ahal den heinean, ikasleen ordutegietako hutsuneak.
- Matrikula kopurua dela eta, irakaskuntza modalitate bateko ikastalde kopurua argi ez dagoenean, espero litekeen ikastalde kopururik handienaren ordutegiak egingo dira, taldeak baimendu ahala aplikatu zaion (errazagoa da talde bat ezabatzea, matrikula ez bada esperotakoa). Gomendagarria da ikastalde estra hauen ordutegiak gainerako ikastaldeen ordu tarte berean kokatzea (ordu bertsuetan irakatsiz). Ezinezkoa balitz, komeniko litzateke, irakaskuntza hau eskaini edo baimendu ezean, ordutegietan hutsarterik sortuko ez luketen ordu tarteetan kokatzea.
- Ikasleak irakaskuntza modalitate ezberdinen artean banatzea, graduaren arabera. Hau da, saihesti behar dira talde mistoak, gehieneko kopurua betiere gainditu gabe.
- Halakorik ahal denean, matrikularen gehikuntza dela eta, ikasgelako talde berriak (T/S/GA) sortzen direnean, talde berri hauen ordutegiak lehendik diren taldeen berberak izango dira (gaineztatuta) edo ordutegiko tarte hutsetan kokatuko dira. Aldaketa hauek ez dute eraginik izango gainontzeko talde edo irakasgaien ordutegietan.

ORDUTEGIAK ALDATZEKO IRIZPIDEAK

6. artikulua. Aurreko ikasturteko ordutegia aldatzeko beharra lekarketen zioak sortuko balira, honako arau hauei jarraituko zaie:

- Akademi ikasturte bakoitzean, ikastegiak egutegia zehaztuko du ordutegietan aldaketarik eskatzeko, bai eta honetarako prozedura ere.
- Eskola magistralak (T) ezin alda daitezke, salbu eta bi saio egun berean badira eta jaiegunekin desorekatzen badira. Aldaketa honek ez du eraginik izango gainerako ordutegietan.
- Ikasturteren batean irakasgai bereko bi saio (T motakoak barne) jaiegun “errepikatuak” ukituz gero¹, bi saiootako ordutegi bat berresleituko ahal da, gainerako ordutegi bat

¹ Lehenengo lauhilekoan jaiegunak asteko egun berean suertatzen dira (azaroak 1, azaroak 15 eta abenduak 6). Kasu honez ari da jaiegun errepikatuz mintzatzerakoan.

bera ere aldatu beharrik ez dela.

- Aurretiko aldaketa guztiak aukerazkoak dira. Ikasturtea planifikatzeko unean proposatuko dira, ikastegiak ezarritako prozedurari jarraiki.
- Aintzat hartutako gainontzeko kasuetan ez da ordutegirik aldatuko. Irakasleak izango dira, egoki baleritzote eta ikasleekin adostu ondoren, arrazoi batengatik edo bestearengatik galdutako saioak berreskuratuko dituztenak (gainerako saioan ukitu beharrik gabe)².
- Ordutegietan gerta litezkeen auzien aurrean, honako lehentasun hau ezartzen da:
 - Lehenengo eta bigarrenekoek gainerakoekiko, ordena honi loturik.
 - Nahitazko irakasgaietakoak hautazkoetako ordutegiarekiko.

ORDUTEGIAK ETA ALDATZEKO ESKARIAK OSATZEKO TERMINOLOGIA

7. artikulua. Beharrezkoa irizten zaio ordutegietarako hizkera amankomun eta anbiguotasunik gabekoa ezartzeari (kodetzea). Honako jarraibide hauei lotuko zaie:

- Irakaskuntza modalitate ezberdinetako ikastaldeak (01GA2, 31GO3, ...) eta ordutegiak (asteak, aldiak eta maiztasunak) kodetzea bera izango da gradu guztietarako (GAUR aplikazioak darabilena, hau da, astea, eguna, fase/aldia...).
- Ordutegietan aldaketarik egin beharko duen irakasleak eskaria egin beharko du, ikastegiak horretarako zedarritutako inprimakia bete eta irakaskuntza plangintzarako dekanorde edo baliokideari igorriko diolarik.
- Ordutegian egin beharreko aldaketak akademi ikasturte bakoitzean zehazturako epean eskatuko dira, betiere matrikula prozesuaren aurretik. Epe honetatik kanpoko eskariak ikasgelak eskuz erreserbatzeko prozesuaren bidez tramitatuko dira (ordutegi ofiziala aldatu gabe). Aldatzeko arrazoiak irakaslearen eskumenetik kanpokoak badira, ordutegi ofizialak aldatuko ahal dira.

Leioa, 2014.eko martxoaren 26an.

² Asteazkenetan, 12.00 eta 14.00 bitartean, ez da eskolarik irakasten.



Normativa de diseño y modificación de horarios de la ZTF-FCT

(aprobada en junta de Centro del 26 de marzo de 2014)

EXPOSICION DE MOTIVOS

La motivación que ha dado lugar a esta normativa ha sido la necesidad de mejorar el proceso de confección y ajuste de los horarios docentes de los grados de la facultad cada curso académico.

Después de unos primeros cursos de implantación de los grados, una vez analizada la experiencia, desde el equipo directivo del Centro se ha considerado necesario fijar unas reglas claras que permitan simplificar y con ello facilitar y mejorar el trabajo de todos los implicados en la gestión de aulas y horarios (coordinadores y coordinadoras y el Centro). Toda esta mejora debe llevar ineludiblemente a un beneficio para todos ellos, esto es, estudiantes, PDI y PAS.

La presente normativa se estructura de acuerdo a tres objetivos:

- Fijar unas normas para confeccionar unos horarios sostenibles. Esto es, definir unas reglas para que los horarios acordados con los departamentos tengan una validez de varios cursos, independientemente del calendario concreto de cada año. En unos casos será conveniente fijar normas de obligado cumplimiento y en otras dar unas recomendaciones.
- Definir las directrices que permitan regular las modificaciones que sea imprescindible abordar, una vez fijados los horarios.
- Establecer el procedimiento para solicitar modificaciones de horarios.

NORMAS PARA LA CONFECCIÓN DE HORARIOS

Artículo 1. Se confeccionarán los horarios independientemente del calendario. Es lo que a lo largo del texto se entiende por confeccionar horarios clonables o sostenibles.

Los horarios de las modalidades docentes de aula (T, S, GA y GO de 1 hora de duración) tendrán una validez de cuatro cursos (dos cursos renovables por otros dos si no hubiera motivos importantes para realizar cambios).

Artículo 2. Los horarios de las modalidades docentes de “no” aula (GL, GCA y GO de sesiones de más de una hora) se confeccionarán cada curso académico aunque intentando que los cambios entre un curso y el siguiente sean mínimos.

Los horarios de la modalidad docente GO (grupos de ordenador) de sesiones de 1 hora y situadas entre sesiones de modalidades docentes de aula, se considerará, como éstos (art. 1). El resto (los agrupados en sesiones de más de 1 hora) se tratan igual que los GLs y GCAs.

Artículo 3. Ante posibles conflictos en los horarios durante la confección de los mismos, o posteriormente, se establece la siguiente prioridad:

- Los de primer y segundo cursos respecto al resto, por este orden.
- Los de las asignaturas obligatorias respecto a las optativas.

En consecuencia los horarios se deberán confeccionar siguiendo el orden de las prioridades.

Artículo 4. Cuando se den situaciones que por causa mayor obliguen a revisar los horarios (bajas, permisos, jubilaciones, ...), el Centro lo analizará, y en su caso los modificará.

RECOMENDACIONES PARA CONFECCIÓN DE HORARIOS

Artículo 5. A la hora de confeccionar los horarios es recomendable que se sigan las siguientes directrices para solucionar muchos de los problemas que puedan surgir:

- No programar más de una sesión del mismo grupo y de la misma asignatura el mismo día de la semana, siempre que sea posible.
- Poner las sesiones de los diferentes grupos de las modalidades docentes (GA1 y GA2, o S1, S2 y S3, ...) el mismo día de la semana, evitando un número excesivo de horas el mismo día tanto para el alumnado como para el profesorado.
- Cuando por razones de una festividad reiterada³ se desequilibran los diferentes grupos de las modalidades docentes GA/S/GO (si no se imparten en el mismo día), se podrá reasignar únicamente el horario de la sesión afectada. En ningún caso estos cambios supondrán modificación del horario del resto de grupos o asignaturas.
- Evitar, en la medida de lo posible, los huecos en los horarios del alumnado.
- Cuando por el número esperado de matriculados o matriculadas no esté claro el número de grupos de una modalidad docente, se confeccionarán unos horarios para el máximo número de grupos previstos a la espera de que se autoricen (es más fácil eliminar un grupo si la matrícula no es la esperada que crearlo). Se recomienda que los horarios de estos grupos extra sean en las mismas franjas horarias que el resto de grupos (se impartan en las mismas horas). Si no fuera posible, sería conveniente que se sitúen en franjas horarias que no supongan huecos en el horarios si no se llegasen a ofertar o autorizar.
- Distribuir el alumnado en las diferentes modalidades docentes por grados. Esto es, evitar los grupos mixtos, siempre que no se supere el límite máximo.
- Siempre que sea posible, cuando surjan nuevos grupos de aula (T/S/GA) debido a un aumento de la matrícula, los horarios de estos nuevos grupos serán los mismos que los que ya existan (se solapen) o se colocarán en los huecos existentes. En ningún caso estos cambios supondrán modificación del horario del resto de grupos o asignaturas.

NORMAS PARA MODIFICACIÓN DE HORARIOS

Artículo 6. Cuando existan razones que hagan necesario modificar el horario del curso anterior, se seguirán las siguientes normas:

- Cada curso académico el Centro establecerá un calendario para solicitar modificaciones de los horarios, así como el procedimiento para el mismo.
- Las clases magistrales (T) no se podrán modificar, excepto en los casos en los que haya dos sesiones el mismo día y se vean afectadas por festividades. Esta modificación no deberá afectar al resto de horarios.

³ En el primer cuatrimestre siempre caen en el mismo día de la semana los festivos (1nov, 15nov y 6dic). Este caso corresponde únicamente a este conjunto de coincidencias.



- Cuando en un curso coincidan dos sesiones (incluidas las T) de la misma asignatura en un festivo “reiterado”¹, se podrá reasignar únicamente el horario de una de las sesiones, sin que esto implique modificar ningún horario del resto.
- Todos los cambios anteriores serán opcionales. Se propondrán en el momento de la planificación del curso según el procedimiento establecido por el Centro.
- Para el resto de casos no considerados no se modifica el horario, serán los y las docentes los que, si lo consideran oportuno, de acuerdo con los y las estudiantes recuperen sesiones que por una razón u otra se hayan perdido (sin afectar al resto de sesiones)⁴.
- Ante posibles conflictos en los horarios se establece la siguiente prioridad:
 - Los de primer y segundo respecto al resto, por este orden.
 - Los de las asignaturas obligatorias respecto a las optativas

TERMINOLOGÍA PARA LA ELABORACIÓN DE HORARIOS Y SOLICITUD DE CAMBIOS

Artículo 7. Se hace necesario fijar un lenguaje común y sin ambigüedades para los horarios (codificación). Se seguirán las siguientes directrices:

- La codificación tanto de los grupos de las diferentes modalidades docentes (01GA2, 32GO3, ...) como de los horarios (semanas, periodo y frecuencia) será igual para todos los grados (la que utiliza GAUR, esto es, semana, día, fase/periodo, ...).
- Para los casos en los que se necesite hacer cambios en los horarios, el docente implicado o la docente implicada realizará la solicitud rellenando el impreso preparado para tal fin por el Centro, que irá dirigido al Vicedecano o la Vicedecana de Planificación Docente o equivalente.
- Los cambios en el horario se solicitarán en el plazo especificado cada curso académico, siempre antes del proceso de matriculación. Las solicitudes fuera de ese plazo se tramitarán vía reserva manual de aulas (sin modificarse el horario oficial). Si las razones para la modificación son ajenas al docente o a la docente podrán suponer cambios en los horarios oficiales.

Leioa, a 26 de marzo de 2014

⁴ Los miércoles de 12:00 a 14:00 no son lectivos.